

gendu. Baina, hainbeste lortzea nekeza danez, guk gure aldetik egin beharko dugula argitalpena.

Bazkalondoko solasaren bukaeran Arrue jaun euskaltzaina mintzaten da, mugaz alde batekoen izenean bestaldekoiei anaitasuna agertuaz eta elkartasunean irauntzea eskatuaz.

Solas horietan elkar ezagutzen ez ziren anitzek izan dute kontaktu personala egiteko aukera, eta egintza asmoz beteriko elkarrizketak girotu zuten Beskoitzeko egunaren bukaera.

HIL - BERRIAK

KLAUDIO SAGARTZAZU SAGARTZAZU (1895-1971)

1971eko azaroaren 23an hil zen Klaudio Sagartzazu, bere sorterri zen Ondarrabian. Herri onetan jaioa bai zen 1895eko urriaren 30ean.

Olerkari bezala, «Satarka» izenez ezagutzen zen, eta gazte denboran anitz sari eramana zen. 1918 eta 1920an Donostiako olerki sariak jaso zituen, eta garai berean mugazandiko Iholdin ere bai. «Satarka», Luis Jauregi «Jautarkol»ekin batean, euskal literatura-ren lirikaren lehen bide urratzaileetakoa genuen noski. Eta Aitzolen inguruan, 1930ean, «Euskaltzaleak» izeneko olerki berrizte mugimenduaren eragileetakoa bat izan zen. 1966garrenetik Euskaltzaindiaren laguntzaileetarikoa genuen. Etxegintzako kontratista zen ogibidez.

Bere olerki liburuak: *Txinpartak* (Donostia, 1922) eta *Intza Begietan* (Donostia, 1957). Lehenbiziko liburuak Victor Hugo eta Heine-gandik itzulitako poesia batzuek ere baditu; bigarrenak, M. Lekuonaren hitzaurrea eta A. Valverderen irudiak daramazki, eta erdal itzulpenez argitaratua da.

Lehen liburuko olerkirik ezagunena, «Aurtxo seaskan» izango du noski. Poematxo hau, seaska kanta, Olaizolak musika jarri zionetik oso ezaguna baita Euskal Herri guzian.

Euskal literatura murriztarian bere toki berezia merezi du olerkari samur honek. G. B.